



MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezero nagusiak mugikortasun murriztua edo desgaitasun fisikoa duten pertsonak dira. Baita izan daitezke adin nagusiko pertsonak, adinagatik zailtasunak dituztelako gauza batzuk haien kabuz egiteko. Gainera, gure arropa pertsonalizatua interesgarria izan daiteke zaintzaileentzat, familia kideentzat edo erakunde sozialentzat (ospitaleak, elkarteak...), pertsona bakoitzaren behar zehatzetara egokitutako arropa praktiko eta erosoak bilatzen dituztenentzat. Gainera, kontuan hartzen dugu Euskadiko biztanleriaren %6,3k desgaitasunen bat duela. Rastard giza baliabideen enpresaren arabera eta 2025. urtean Espainia osoan 4 milioi pertsona baino gehiago daudela desgaitasunen batekin aipatzen du Espainiako gobernuak.

Bezero hauek egunerokotasunean erosotasuna eta autonomia bilatzen dituzte. Gehienek independentzia handiagoa nahi dutelako janzterako orduan, eta horretarako bereziki haienentzat diseinatutako arropa pertsonalizatua, erraz erabiltzeko modukoak, erososa eta segurua behar dute.

Gure proiektuaren bezeroak adin-tarte guztietako pertsonak dira, haurretatik adinekoetaraino, desgaitasun fisikoak edo mugikortasun beharrak dituztenentzat, betiere neurritan eta pertsonalizatuta egindako arropa eskainiz.

Gure proiektua hasieratik arropa pertsonalizatuan oinarritzen da, pertsona mota guztientzat pentsatua, bakoitzaren behar, gustu eta egoera pertsonalera egokituz, eta genero bereizketarik gabe; izan ere, gure diseinuak unibertsalak, inklusiboak eta pertsonalizagarriak izango dira.

Errenta mailari dagokionez, gure arropa pertsonalizatua edozein ekonomi mailako pertsonentzat eskuragarriak izango dira. Helburua da arropa egokitua guztion eskura jartzea, pertsonalizazioa prezio justu batekin uztartuz, prezio-kalitatean oinarritutako jantziak eskainiz. Gainera, gure arropa egokitua pertsona mota askorentzat aproposa izango da: kirola gustuko dutenentzat, haien mugimendu beharretara egokitutako jantziekin mugitzeko askatasuna ematen duten jantziekin; kolore eta diseinu bereziak bilatzen dituztenentzat, estilo pertsonala modu librean adierazteko; edo eguneroko erosotasuna eta praktikotasuna bilatzen dutenentzat, lanerako, etxerako edo ekitaldietarako.

Azken finean, gure bezero segmentua anitza eta zabala da: adin, estilo eta egoera fisiko ezberdinetako pertsonak biltzen ditu, guztiek helburu bera partekatzen dutelarik: beraientzat espresuki sortutako arropa pertsonalizatuarekin erosotasunez, autonomiaz eta modaz janztea, oztoporik gabe.

Datuei buruzko linkak:

Espainiako gobernua

<https://www.rpdiscapacidad.gob.es/discapacidad-derechos-humanos/enfoque.htm>

Ranstard Giza baliabideen enpresa

<https://www.randstad.es/nosotros/sala-prensa/las-personas-con-un-grado-de-discapacidad-r-econocida-en-pais-vasco-representan-el-63-de-su-poblacion/>